

Nafarkaria

• ostirala • 2002ko apirilaren 5a

Egunkaria

Gehigarri honetan



Lizarra • Gazteek atondutako Gaztetxea botatzeko agindua eman du Udalak inolako irtenbiderik eman gabe • 2


Diego Gracia • «Nire azken filma jauzi garrantzitsua izan da» • 7

• LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

Noaindik

gure ahoetara

Edateko ura Subitzako iturburutik Iruñera eramateko, XVIII. mendearen bukaeran akueduktu ederra egin zuten Noainen. 1790eko ekainaren 29an ailegatu zen ur hori estreinakoz Iruñera. Urte batzuk geroago, Luis Paretek diseinaturiko iturri neoklasikoen txorrotatik ateratzen hasi zen ura. N-15 autobideak moztu egin zuen Noaingo akueduktua eta, jada, ez da ura bideratzeko erabiltzen; baina orain ere ateratzen da ura Paretan iturrietatik edateko moduan.



Gaztetxea, kinka larrian



Lizarrako Gaztetxeak sei urte beteko ditu ekainean, Udalak lehenago eraikina eraisten ez badu.

● CRISTINA BERRAIN

Gazteek atondutako gaztetxea botatzeko agindua eman du Udalak inolako irtenbiderik eman gabe

Ustez aste honetan eraitsi behar zuten armadaren kuartela izan zen eta egun gaztetxea atertzen duen eraikina. Horixe da Lizarrako Udalaren aspaldiko asmoa, alta, berriro ere atzeratu dira eraisketa lanak. Hala ere, gazteen etorkizuna kinka larrian dago.

1993. URTEAN UTZI ZUEN Espainiako Armadak Lizarran zuen kuartela. Hiru urte geroago, 1996. urteko ekainean, hain zuzen ere, hiriko gazteek eraikinaren zati bat okupatu zuten. Tartean, solairua hutsik egon zen, eta pixkanaka-pixkanaka, ez erabiltzea zela medio, zahartzen hasia zen. Gazteek emeki-emeki, paretak margotu, gelak txukundu, taberna jarri, kontzertuak egiteko agertokia paratu... Finean, Gaztetxe txukun eta duin bat atondu zuten. Eta aurki sei urte beteko dituzte, Udalak seigarren urteurrena os-

patzea oztopatzen ez badie, bederen. Duela urtebete, 2001. urteko martxoan alegia, Lizarrako Udalak solairua botatzeko asmoa agertu zuen. UPNko udal taldeak igerilekuak egin nahi ditu 17.000 metro koadroko solairuan. Alta, eraikina Espainiako Defentsa Ministerioarena da, eta, ustez, Udalari emateko asmoa agertu badu ere, gauzak ez daude batere garbi. Defentsa Ministerioak aste honetan eraisketa lanak hasteko asmoa zuen, baina gazteek eraikinaren biztanle bezala duten eskubideaz jakinda, atzeratu egin

ditu lanak. Orain, Auzitegiak eman beharko die gazteei eraikina uzteko agindua, eta ministroak oraindik ez du egin gazteak kanporatzeko eskakizuna. Epaitegiak eskakizuna jaso eta ebazpena eman bitartean, eraisketa lanak atzeratu egingen lirake. Halaber, zehaztu beharra dago, Defentsa Ministerioak eraikina botatzeko zuen eraiste baime-na agortu egin dela —martxoaren 28an agortu zen—, eta lan hauek aurrera eramateak 192.000 euroko balio duela. Lizarrako Udalak, berriz, berriro egin du lizentzia, eta iraupena luzatu.

«Gaztetxea bizirik»
Lizarrako Gazte Asanbladak ekitaldi aunitz egin ditu azken egunotan gazteek bizi duten egoera larria salatzen asmoarekin. Erraterako, bilerak, elkarretartzeak eta manifestaldiak egin dituzte, eta hiritarrei haien egoeraren berri emateko xedearekin, kartelak paratu dituzte hiriko hainbat karrikatan. Halaber, txostenak eta esku orriak banatu dituzte 'Gaztetxea bizirik' lelopean. Udalaren asmoaren berri komunikabideen bidez ezagutu izana salatzen dute, hala nola, Udalak bertze irtenbiderik ez eskaintzea. «Ez digute inolako irtenbiderik ematen, karrikara bidaltzea ez bada. Ez dute orain arte egindako lana aintzat hartzen, ez Gaztetxean bertan egin dugun lana ez eta hiri biziago bat sortzeko egin dugun ahalegina», diote gazteek. Ildo horretan, Lizarrako Gazte Asanblada ez dagoela eraisketaren aurka agertzen dute, «beste irtenbide bat eskaintzen baldin bazaigu». Ildo horretan, aspaldian eraikitzen hasi zen ustezko gaztetxearen

lanak geldituta daudela ere salatzen dute. Baina lanean darraite, «Makinek ez dituzte gure ideiak, ametsak eta ekintzak hautsiko».

Bizikleta martxa eta burrunbada
Egun, 50 gazte inguruk parte hartzen dute gaztetxearen kudeaketan, eta bertze 200 batek ekitaldietan bat egiten dute. Sei urte hauetan, eraikin zahar eta abandonatu bat baino ez zena txukun atontzeko gai izan dira, baita kudeaketa on bat ere: hitzaldiak, jaialdiak, antzerkiak, kontzertuak, ikastaroak eta abar antolatu dituzte. Bihar ere, haien esku-bideak aldarrikatzeko, protesta eguna antolatu dute. Goizean, 11:00etan bizikleta martxa abiatuko dute, Gaztetxetik, eta 19:00etan, burrunbada. Zarata egingen dute Lizarrako karriketan barna haien oihuak entzun daitezen eta haien eskubideak errespetatu daitezen. Hala izan bedi!

→ Kristina Berrain

Massilia a Caesare capitur

AITOR TXARTERINA



J.M. bitxi-denda. 2002ko apirilaren 5a


Duela hilabete bat Jonas Malheiro Savimbi, UNITAko buruzagi historikoa hil da; Angolako gerra zibil luzeak bertze gizaki bat irentsi du. Oraingo honetan izen handi bat, artikulu bati ekiteko sarrera estetiko eskaintzen duena. Larunbat 30ean su-etena sinatu zuten Luena hirian gerran dauden bi aldeek. Angolako Estatuaren izenean Nunda generalak sinatu zuen. Honi eskua luzatu ziona UNITAko general Kavorteiro izan zen. Zein baino zein gazteagoa.
2002ko apirilaren 5ean J.M. bitxi-dendan sartu ahal izaiteko ate ezkerrean, beheko aldean den txirrina jo du H.C.B. andreak, nerbiohistorik eta haserre antzean. J.M.-k berak ireki dio atea, baita egun onak opatu eta baita foka antartikozko berokia kentzen lagundu ere. Bisita-

ren zergatia azaleratu denean, J.M.-k, kezkatuik barnean, lasai planta eginez, barnera iragaitera gonbidatu du. Han, H.C.B.-k Tanzaniako marfilezko kutxa errektangeluar ikusgarria atera du. Vendi elikagai banaketa taldearen poltsa batetik. Klak. Namibiako urrez eta Sierra Leonako diamantez eginiko idunekoa begira geratu da J.M., norberaren obra denbora edo distantziarekin nola bilakatzen den arrotz ari da hausnartzen. Ederra iduritzen zaio bitxia. Denborak, edo distantziak, distira gehiago pilatu dizkio maisulanari. Hemendik atera zen baino askozaz ikusgarriago dagoela erran dio bitxigileak. Emakumea ez da batere ados, eta arrangura utzi dio mahai gainean, hormetan, koadroetan, gela orotan... hainbertzerainokoa izan baita eurodun oihua.

J.M.-k ezin daitekeela, ez dela posible, nola baina... desenkusutzen da. Froga enpiriko gisa, andreak idunekoa jantzi du, salaketa zuzenagoa izan dadin. Handik minutu batera, eta berak aitzineratu bezala, odola daro idunekoa, J.M. artega eta totelka galapan doa botikinerara. Andreak trankildu du; idunekoa erantzarekin batera odola ez dela berea erakutsi dio, idunekotik jaigi dela, berez. Azalpenaren tenorea heldu dela emaiten du. Barkatu andrea, hogeita hamahiru urte daramatzala ofizioan eta (irakurle: ozen ahoskatu) zinez sinesteko ez duela sekula santan halakorik ikusi. Emakumea mesfidati sartu du idunekoa kutxan, eta heldu den astean iraganen dela bila. Baietz, baietz, erran dio J.M.-k. Ate bat itxi da eta bertze bat ireki.

Elizondo

Elizondoko udazkeneko feriek sona handia dute, Baztan guztian ez ezik, Bidasoako eskualdeetan zein Ipar Euskal Herriko hainbertze herritan. Sasoi batean, halere, ez ziren hauek Elizondon egiten ziren feria bakarrak, eta udazkenean bezala, udaberrian ere ospatzen ziren.



Udaberriak ere bere feria

Hainbat erakunde udaberriko feria berriz antolatzen saiatzen ari dira. ● TTIPI TTAPA

Azken urteotan, Baztango Udalak, Garalur garapen agentziak, Bertizko Partzuergoak eta bertze hainbat erakunde ahalegina egin dute Elizondoko udaberriko feria berriz abian jartzeko. Oraindik ez dute urriko ferien jendetzarik biltzen, baina bertzelako kutsua eta hurbiltasuna dute, feria tikiak dira finean. Baztango Udalak antolatu eta Bertizko Turismo Partzuergoak, Elizondoko herriak eta Nafarroako Aratxeak babestutako besta iraganen da gaur.

Goiz partetik sumatuko da mugimendua Elizondoko karriketan. Azienda feria egiten da, merkatuko plazan, eta tartean, ahari lehiaketa. Baztango latxa arrazako ahariak lehiaketa da, eta lau sari emanen dituzte, bi mutur gorrientzat, eta bertze bi mutur beltzentzat. Sari banaketa eguerdiko 13:30ean

eginen da, merkatuko plazan hori ere.

Ez da hau urriko feria bezain garrantzitsua, ez saritan, ez abelburu kopurutan ere, baina eskualdeko baserrietan hazten diren animalien erakusleho izanen da gaurkoa. Goizeko 10:00etatik aitzinera, gainera, Nafarroako aretzea erreko dute plazan, eta Baztan-zopak dastazera eskainiko.

Bertako produktuak nagusi

Tenore berean ekinen zaio bertako produktuen feriarri, 13:30 bitartean; arratsalde par-

tean, berriz, 17:00etatik 19:00etara izanen dira ikusgai bertako produktuen erakusmahaiak. Urriko ferian kanpoko produktuek hartua dute nagusitasuna, eta horregatik, oraingo honek bertakoei leku berezia egiten die. Denetara 16 mahai paratuko dituzte, gasna, fruituak, edariak, kontserbak, pirukiak, eztiak, ta loak, txokolata, egurra, burdina, larrua eta ukenduak bilduko dituztenak. Artisau guztiak, gainera, eskualdekoak dira.

Arestian ahari lehiaketa aipatu badugu, hau ez da iza-

nen lehiaketa bakarra. Gasna lehiaketa ere antolatu dute, hirugarrenoz, Baztango gasnagileei mugatua. Gasnategiko gasnak eta etxeok bereiziko dituzte alor honetan, eta hemen ere bi sari emanen dituzte.

Egun osoan animazioa izanen da Elizondoko karriketan: txistulari eta trikitilariak ibiliko dira goiz partean, eta Baztango dantzariak arratsaldeko 17:30ean. Iluntzeko dantzaldiarekin amaituko da eguna.

→ Jon Abril

Besta egunak eskulangileak, azienda, eta ikuskizunak bilduko ditu, gaur

Iruñea • Sanferminetako museoa zentro tematiko interaktiboa izanen da

Teknologiarik berrienarekin bestari buruz egindako ikus-entzunezkoa, entzierroaren ibilbideko zati baten maketa eta erraldioen konpartari buruzko historia izanen dira Iruñean egiten duten Sanferminen inguruko museoak bilduko dituen ataletako batzuk. Arrotxapean izanen da eraikin berria, Parmako baluarte. Udaleko agintariak azpimarratu dutenez, «museo dinamikoa» izanen da, eta sanferminena ez ezik, beste hainbat bestaren ere berri ere bilduko du.

Museoa sanferminei buruzko zentro tematikoa izanen da, Iruñeko alkate Yolanda Barcinak nabarmendu duenez. Onartutako proiektuaren arabera, hainbat atal izanen ditu eraikin berriak, eta haien

artean, erakustaretoa eta dokumentazio gunea izanen dira nagusiak. Museoak, besteak beste, Iruñeko historia eta sanferminen bilakaera ezagutzeko aukera eskainiko du, eta teknologia berrien eskutik, bestan modu birtualean murgiltzeko parada izanen dute bisitariak. Hemingwayk sanferminekin eta hiriarekin izan zuen harremana, entzierroa eta Iruñeko zezenketak izanen dira museoak jorratuko dituen beste ataletako batzuk. Entzierroari dagokionez, ibilbidea egin ahal izanen dute bisitariak, ekitaldi horri buruzko informazio zehatza jasotzen duten bitartean.

Museo berriaren bidez, sanferminei buruzko informazio zabala eskaintzeaz gain, Arrotxapeko erdigunea biziberritu nahi du Iruñeko Udalak, turismoa hara eramanez, eta zonalde hori hiriko Alde Zaharrekin lotu. Gainera, sanferminekin lotuta, Udalaren asmoa da entzierroaren ibilbideko lehen zatia moldatzea eta zezenak gaez Gaseko ukuilutik Santó Domingora eramateko egin ohi den entzierroaren baldintzak hobetzeko azpiegitura egokia martxan jartzea.

→ Edurne Elizondo



urdairen mintzoa

Xabier Larraburu

Galipentzun

Joan den asteko igande arratsaldean, Galipentzun, paseotik bueltan, herriaren mugan bere seme gaztearekin eserita zegoen agureari ea ibai hura zein zen galdetu genion, eta berak, zapata kaxa batetik ateratzen zituen almendrak apurtzen zituen bitartean, ibai hura Aragoi zela esan zigun, eta ea nongoak ginen bada, eta nik Iruñekoak, eta ondotik ibai garrantzitsua zela hura gehitu nuen (adeitsu), eta berak baietz, noski, ur asko eramaten zuela erantzun zidan, eta Irati ibaiaz eta Esaz ere zer edo zer azaldu zuen segidan (almendrak apurtzen zituen bitartean).


Gero ea zubi erromatarra (!) ikusia genuen galdetu zigun, eta guk ezetz, eta berak erdi-harrituaren erdi-ikaratuaren aurpegia jarriz (argi gera zedin galeraren tamaina!) ea zuba den handiarekin nola ez genuen ikusi galdetu zigun, eta bere semeak «ezkerreko bidea hartu dute, aita» esan, eta agureak «klaro, ezkerreko bidea hartuz gero ez duzue topatzen ahal, ezkerreko bidea ibaian hiltzen da», eta herriko biztanle baten izena bota zuen eta ihardespennik ametitzen ez duen Egia Borobila errepikatu zuen bi edo hiru bider: «Ezkerreko bidea Pakitoren soroan hiltzen da».

Eta atzean zuen lautadari eta ibaiari bizkarra ematen bazion ere, «Pakitoren gereziandoan bukatzen den bidea hartu duzue beraz!» bota eta, irribarretsu, «loretan egongo da dagoeneko!» gehitu zuen, baina bere semeak ezetz, gereziandoa ez zegoela loretan esan behar izan zuen, egia baitzen, eta agurea orduan nola ezetz?, harritu samar edo «zuk zer dakizu?» esanez bezala, eta semeak hemendik ikusten dut-eta!, eta egia zen. Hantxe zegoen, Pakitoren soroan, lautadaren erdian, zumarren ondoan, inongo loririk gabe oraindik, erdi-lo, bide bukaeraren dagoen gereziandoa famatua, eta kriski-kraska almendrak eskaini zizkiguten, azalik gabe jada, eta latzak sentitu genituen eskuaren ahurrean eta lehorrak eztarrian, eta oso onak zeuden Galipentzuko zeru urdin eta zabal haren pean, baina garagardo freskoa hartzeko gogoa ere handia zen, eta «agur» esan genien agureari eta bere semeari, eta hau zen kontatzeko nuen guztia ●




Mariblanca ibiltaria

Luis Pareten bost iturrien artean, Errepublika, Konstituzio edo Gazteluko plazan jarri zutena zen handiosoena. Karratua zen, zutabe korintioak zituen, eta lore pote bana lau txorroten gainean. Eta goigoian, Mariblanca, Onegintzaren irudikapen alegorikoa. Iturri ederra izanagatik ere, 1909ko martxoaren 5ean, gauz eta oso ordu gutitan, iturria suntsitu zuten bertan musikarako kiosko bat jartzeko. Orduantxe hasi zen Mariblanca estatuaaren ibilaldia. Misericordia etxean abandonatu zuten, harik eta 1912an San Frantzisko plazaren erdian paratu zuten arte. Baina plaza horretan San Frantziskoren estatua egon behar zuenez, 1927an Takonerara eraman zuten Mariblanca. Askok uste dute ez dagoela merezi duen tokian eta moduan.




Zugondo

Luis Parugarren iturria jartzeko Zugondo edo Navarraplaza proposatu zuen Rodríguezek. Iturriarego kokalekua ikusita izen ahal da behingoturri bat bere lekuan jela. Baina Jose Garcia 200 urte geroagoaren arabera, Navarraplaza katedrale aitzineana da, non zuma bat omen zegoen. Iturriarego arazo teknikoak zituzten eta azken geroago dagoen plazan, Santa Zezilia plazan, Navarrerria plaza bezagutzen duen horretan zuten.




Lehoi berdeak

Luis Pareten iturri neoklasikoak ezagunak badira iruindarren artean, are ezagunagoak dira hirian barreiatuta dauden lehoi itururako iturri berdeak. Ehun urte pasatxo dira iruindarren egaria asetzen ari direla, eta, egun, berrehun bat daude. Sancena fundizio etxeak egiten ditu eta bertako arduradun batek erran duenez, eredu ingeles baten kopia dira, lehenbiziko iturriek ingelesko inskripzioen bat baitzuten. Dena dela, ez dakite zehatz mehatz nork diseinatu ote zituen.



Iturri zaharra

Iruñeko iturrien artean, Labrit aldaparen goiko aldean dagoena omen da zaharrena. Jada 1232ko agiri batean aipatzen dute «fuent viella» (iturri zaharra). Tejeriako atarian omen zegoen, hegoaldeko harresietan, 1403ko beste agiri batek dioenez. 1918an harresiak botatzen hasi ziren eta, hiru urte geroago, zezen plazaren azpian euste murrua eraiki zuten; eta horri atxikia gelditu zen iturri zaharra, bere aska eta guzi. Hortaz, 1921etik gutienez, Labritekoa da Iruñeko iturri zaharrena.



Iturri pribatua

Luis Pareten diseinuaren arabera, laugarren iturria Kontseiluko plazatxoan eraiki behar zen. Ez zen hala egin. Iturriaren goiko alde egin zuten soilik eta, gainera, Gendulaingo konteak erosi zuen plazaren hegoaldean dagoen etxearen barneko lorategian jartzeko. Etxeak Zapateria kaleko zerbakia du. Iturri hau egin ez zela erran izan dute, baina Jose Garcia Estebanen 200 urte geroago liburutik hartutako irudian ikusten denez, izan bada iturri hori, nahiz eta bere lau txorrotatik urik ateratzen ez den.

Iruñeko iturriak

Berrehun urte geroago, Luis Pareten bost iturri neoklasikoen proiektua bukatu gabe dago indik

XVIII. mende bukaeran, Iruñea hiri modernoaren plantak hartzen zen. Etxeei zerbakiak egokitu zizkieten, karriketaren izena agertzeko plakatu zituzten, galtzadak harriz estali zituzten, estolda eta ur zikineta sarea estatu zuten, eta edateko ura bideratu. Noaingo akueduktua bidez, 1790eko ekain 29an ailegatu zen Iruñera Subitzako Frankoa menditik ekarritako

● ARGAZKIAK: LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

EDATEKO URA BIDERATU ETA INAUGURAZIO-aren karietara, hiriko lau iturri neoklasikoak funtzionatzen hasi omen ziren. Iturri haiek Luis Paret (1746-1799) diseinatu zituen. Joachin Lopez izeneko idazkariak izkiriaturiko aktan jasotzen denez, 1788ko apirilaren 23an entregatu zituen Paret Iruñeko iturri izanen zirenen marrazkiak. «Fintasun handiz, eta gustuz, egilearen abildadea eza-gutzeko moduan» eginiko bederatzimarrakien truke, Udalak ehun doblor eman zizkion Paret. Marrazkietan bost iturri ageri ziren, eta guziki zuten kokaleku zehatza, Ventura Rodríguezek proposaturikoaren arabera. Iturrien kopurua eta kokalekua, baina, ez zen errespetatu.

Putzuak eta iturriak

Diotenez, Iruñea azpian ur anitz dago. Mendeetan, putzuen bidez atertu da lur gainera. XVIII. mende bukaeran, bostehun bat zeuden hirian, etxe barnekoak zein karrike-

takoak. Ia kazietan ziren putzu komunalak estaldurak ziren, eta, horregatik, gatzoko maiordomoak sarraizal xitena eta goizean berri ere ireki. Putzu gehienak XX. mende hasieran estaldurak. Oraindik ere haiek ere ahal dira: San Saturninoko putzu zentralen kaleko 2, 4 eta 6 etxeetara soto-patiokoak; eta Cafe Roch-eko sotoak. XVIII. mende bukaera hartan, karriken garbiketarako ere hasi zen, eta 1772rako, estaldura antolatua zuen Iruñeak; «Madrid Zaragozako baina modernoagoraginkorragoa» omen zen, dio Garcia Estebanek. Estoldak egiten hasteaz basterriek ikusi zuten hiriko murruren beharrezkoa zela ur gezako iturriak. Putzuak ez baitziren nahiko. Paretari egiteko proiektua hori zegoen. Noaingo akueduktua egiteari lehentasun eman zioten. Arazo teknikoak eta irizpide aldake-

tek iturrien eraikitze lanak urteetan atzeratu zituzten, harik eta 1797an Errege Ganberak lanak behingoz bukatzeko agindu zuen arte. Lastertasun handiz hasi ziren lanean, apezpikuari igandeetan eta jaiegunetan lan egiteko baimena eskatzeraino. Azkenean, 1798ko irailaren 9an Subitzako ura Pareten lau iturri neoklasikoren txorrotetatik ateratzen hasi zen.

Falta zen iturria Gendulaingo kondeak erosi zuen bere lorategi pribaturako. Beste iturri bat, Mariblancaarena, Gazteluko plazan izan zen 1927 urtea arte. Hortaz, gaur egun Pareten hiru iturri ditugu Iruñean: Kontseiluko plazatxokoa, Navarrerria plazakoa eta Errekoleten plazakoa.


200 urte geroago

Ura Subitzako iturburutik ekartzen hasi eta ehun urtera, ikusi zuten ur-emia ez zela nahikoa hiriaren ur eskakizuna betetzeko. Hainbat proiekturen ostean, ura Artetako iturburutik hartzea erabaki zuten. Baina, 1960 urte inguruan, hornikuntzarako beste iturburu bat behar zela eta, Eugiko urtegia eraiki zuten.

Egun, Iruñerriko Mankomunitateak kudeatzen du ur hornikuntza sarea 270.000 biztanlerendako. Iruñerriak ura hartze iturri berberak ditu oraindik, bi hornikuntza sistematan antolatuta: Arteta-Egillor eta Eugi-Urtasun. Subitzako iturburu ur hornikuntzaren osagarri da.

Jose Garcia Esteban idazleak 200 urte geroago liburuan XVIII. mende bukaerako hura ongi aztertuta eta ondorioztatuta Luis Pareten iturrien proiektua gauzatu gabe dagoela oraino. Izan ere, kontuan izan gabe hasierako proiektuan ezartzen ziren kokalekuak aintzat hartu ez zirela, gaur egun bi iturri eraiki gabe daude. Garcia Estebanen aburuz, ur hornikuntzan egon zitekeen arazoa aitzakia izaten ahal zen Iruñerriko Mankomunitatea sortu arte, «baina ez horren ostean». «Arrazoi urbanistikoek ez estetikoez eragozten dute bi iturri horiek eraikitzea?», galdetu zuen. «Borondate onak traba arin hori gaindituko luke».

→ Asier Azpilikueta



Neptuno ttikia

Luis Pareten iturrien kokalekuen dantzan, San Frantzisko liburutegi ondoko Kontseiluko plazatxoan paratu behar zuten laugarren iturriaren ordez –Gendulaingo konteak erosi zuen hura-, bigarrena jarri zuten –Neptuno ttikiarena-, nahiz eta hasiera batean Takonera parkean kokatu behar zuten. Neptunoren ura jasotzen duten harraskak ez dira jatorrizkoak, 1894an aldatu baitzituzten. Eta itsasoaren jainkoak eskuan duen hiruhortzokoa ere ez da jatorrizkoa; 1982an iturria desmontatu zuten beheko estoldak garbitzeko, eta hura aprobetxatuz, hiruhortzokoa aldatu zioten.



Baratzuriak frutaren ordez

Hasiera batean, Luis Pareten bosgarren iturria Frutaren plazan paratu behar zuten, hau da, 1866tik Udaletxe plaza den horretan. Iruñera biltzen diren turista guziki pentsatzen duten gisara, Frutaren plaza ttikia zen; ttikiagia zen bertan iturri handi bat paratzeko. Izan ere, behinola Udaletxe plaza haragia, arraina, frutak eta baratzkiak saltzeko merkatu bezala erabiltzen zuten, eta iturri neoklasikoak traba egin zezakeen. Horregatik, Errekoleten plazan eraiki zuten azkenean, hau da, Baratzuriaren plazan.

Putzu urre-eskarlataren ertzetik

Aitorpen garrapiñatua.

Irakurleen artean diabetikorik bada, ez dezala irakurri jarraian datorren aitorpen melenga: Hollywoodeko pelikula garrapiñatuaren protagonisten modura, emazteak eta biok badugu gure abestia. Lehen musua elkarri—eta **Bittor Aierdiren** bitartekaritzaren beharrik gabe (badakit txiste txarra dela: ezin guztietan asmatu)— Club Natacioneko San Ferminetako dantzaldi sona handietako batean **Demis Roussosen** kanta mantso hiperkalorikoa entzungai zelarik eman bagenion ere, gure kanta ez da hura. Gure kanta ez da garai hanpatu haietakoa. Gure kanta, denbora neurketa irizpide ia geologikoak erabilita, berriki aukeratu dugu, duela hamar bat urte.

Ingeniaritza hidrauliko-

az. Giza ingeniaritza hidraulikoaren apaltze gupidagabearen poderioz, ezkondu ginenetik emaztearen eta bion arteko ixurki trukaketak gero eta gehiago tartekatzen joan ziren, ohiturarik zaharrenek agindu bezala, astean behinekoak izan arte. Nolanahi ere, ohiturarik zaharrenek agindu ez bezala, trukaketok ez genituen larunbat gauetan gauzatzen—larunbat gauetan amaginarrebarenera joaten ginen afaltzera, eta halako bisitaldien ondotik ez zegoen tresna hidraulikoa martxan jarriko zuenik—, baizik eta igandetako tenore berean.



Victor Manuel Arbeloa politikaria.

Eta hots salatariak seme-alabak aztora ez zitzaten, zubigintzari ekiten geniolaririk irratia pizten genuen.

Emeki-emeki. Garai haietan, irrastian beti SER irrati katea izaten zen entzungai—**Valenen, Piliren, On Goyoren Iruñerian** bezalako saioaren garaiak ziren—, eta beti pasodoble bera entzuten zen, **Manolo Molés**en zezenketei buruzko saioaren hasierako pasodo-



Demis Roussos abeslari mantso hiperkalorikoa.

blea hain zuzen ere: «Junto a Manolo Molés, en el ruedo de la SER, programa de grana y oro ooooo, de la fiesta nacional, lo que usted quiera saber, se lo contaremos todooooo» (Manolo Molésen, SERen zezen-plazatik, urre-eskarlata saiooooooooo, gure jai nazionalaz, kontatuko dizugu, informazio osooooo). Ahots kraskatuz abestua, ezkontzarik zoldazuenetako organo elektronikorekin joa, hasieran okaztagarria

iruditzen zitzaigun. Denborarekin, emeki-emeki, baina, gustua hartu genion.

Zaunka. Inoiz animalien burmuinen kausa-ondorio loturen inguruko erreportaia ikusi dut telebistan. Txakur bati jaten ematen diozun bakoitzean txirrina jotzen baduzu, txirrina entzun bezain baduzu, txirrina entzun bezain pronto txakurrak urin gastrikoak ixurtzen ditu. Nago—ez dakit euskaraz zuzena den, baina zehatzagoa izanen litzateke esatea egon nahi dudala—astelehen gauean horrelako zerbait gertatu zitzaidala. Zapinean ari nintzen, Osasunaren hondoratzearen berri ematen zuten laburpen temosoen jazarpenetik ihesean—ez naiz fededuna, baina Gazteluko plaza jaitsieratik salbatzen bada, prest nago **Javier Mirandaren** batera Donejakue bidea zapa-tillak txitirioz beteta egiteko—, eta halako batean kanalikoan erori nintzen. Canal 4 Manolo Molésen Localia telebistarentzat egiten duen saioa pantailaritzen

ari zen. Txundituta geratu nintzen Molesten ilearen tinte distiratsuari so—**Victor Manuel Arbeloaren** ile-ordekoa baino eskandalagarriagoa—. Eta halako batean, supitoki, gizentasuna gordetzen duen kremallera honatago, ziztada kilikagarria nabaritu nuen. Kezkatu nintzen. Kezkatuta nago. Edo txakur bat naiz, edo txaurkeriaz josiriko sexu-perbertsio putzu urre-eskarlatan hondoratzearekin nago.



panpilonia zirkus

Euskaldunako julak

Txikiteoa eguneroko kontua zenean, San Gregorio karrika jendez beterik zegoen, baita neguko lanegunetan ere. Taberna guztiak mukuru egoten ziren, baina, bereziki, Euskalduna izeneko hura, jende oldearen azken jomuga huraxe baitzen, kabaret ziztrin hura, alegia. Nagusiak euskaldunak ziren, Ameriketatik itzuli ondoren Toribio Ameztoti jaunari ikaztegia erosi ziotenak, etxabe hartan taberna berezia paratzeko, gaur egun Arizona ostatua dagoen tokian.

Euskaldunak hasieratik beretik arrakasta izan zuen, tragoaz gain, bertzerik ere eskaintzen baitzuen, hots, funtzioa, San Gregorio karrikako Maxi Larrañetak dioen gisan: «Gerra ondoko giro triste hartan kristorena izan zuan hura. 45ean edo ireki zitean eta ze jendeketak izaten

zituanean, den-denak nesken funtzioak ikustera etorriak. Bazuan bertze bat San Nikolasen, Irañeta, gaur egungo Baserri ostatuan, baina Irañeta hori puskaz dotoreagoa zuan».

Barra, sartu eta eskuin aldean zegoen. Atzeko aldean, berriz, ezkerretara, paretaren ondoan, oholtza, altua, txikia. Doi-doi sartzen ziren musikariak eta kantaria. Piano jolea, bateria gisako bat, akordeoia eta gitarra jolea. Jendeak ardoa eta koñak edaten zuen, batez ere: soberano, veterano... Karrikan ez zen giro, baina han barnean, festa giro aparta, minututik minutura gero eta beroagoa. Kantaria ateratzen zenean, sekulako irrintziak hasten ziren. Kantua ozta-ozta entzuten zen, egunero berbera, «... caminito de Jerez...», eta bukaera aldera, emakumeak

LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS



San Gregorio karrika, Euskaldunako julen ibiltoki.

gorputza jiratzearekin batera, gonak pixka bat goratu eta aztalak erakusten zituenean, beroenak oholtza eskalatzen hasten ziren.

Enrike Diez de Ultzurrun

«Hura Oestea baitzen, farguesteko salom haien gisara. Gero bazuan ganbara bat eta han jendea banan-banan neskekin biltzen zuan, baina solas egiteko bertzerik ez, hamar bat minutuz edo. Beno ez zituanean neska gazteak preseski. Nagusia, etxeoandre bizkor hura beti zelatan egoten zuan, inork eskua luzatuz gero, karrikara botatzeko prest. Bukatzean, neskak gizonari kopetan musu eman eta jula hura izugarri kontent joaten zuan, hori bai, ardo zuria edanik whiskia zelakoan. Hamaika duro kobratuko ziotean».

Horrela iraun zuen Euskalduna-k. Iruñean erratan zen horko bezeroak julak zirela—hiriko hitza da—, hau da, baserritarak, basomutilak, aldiritarak, kuenkoak. Baina ez ziren hiritar gutxi, gero, bertaritzen zirenak. Azken urteetan, ikasleak ere lotu zitzaizkion giro hari, kantariak gero eta zaharragoak ziren, eta, neurritz gorako desmasiarik ez gertatzeko, atek itxi zituena duela 30 urte inguru.

Diego Gracia

ZINEMAGILEA

«Nire azken film hau jauzi garrantzitsua izan da»

Telebistan bistaratu berri dute Diego Gracia gazte iruindarraren 'Things I did to say I do' film laburra. Graciaren laugarren pelikula da, orain arte egin duenen artean «osoena», azpimarratu duenez. Film luze bat egitea da bere helburua, eta hori lortzeko lan egiteko prest dago.

Los Angelesen filmatu zuen Diego Graciak bere filma, 2000. urtean, hara joan baitzen duela zazpi uste ikasketak egitera. AEBetan bizi izandakoaz eta bere asmoez mintzatu zaigu.

■ Telebistan aurkeztu berri duzu zure laugarren film laburra; pozik?

Bai. TVEko *Version Española* saiora aurkeztu nuen, eta lehiaketan parte hartzeko hautatu zuten. Garrantzitsuena filma ezagutaraztea da. Lehiaketa gutxienezkoa da.

■ Hasteko, lan berri bat egiteko proposamena jaso duzu saio horretan parte hartu eta gero, ezta?

Bai, beldurrezko film labur bat egiteko eskatu dit saioak, Bartzelonako konpainia batentzat, lehiaketan parte hartu duten beste hainbat kideri bezala. Filma baino gehiago trailerra da, minutu inguru iraunen baitu.

■ Laugarren film hori da 35 milimetrotan filmatu duzun aurrenekoa. Orain arteko lanik osoena al da?

Bai, nolabait hala da. Aurreko hiru filmak lagunekin egin nituen, ez ziren aktore profesionalak agertzen, eta, ildo horretan, laugarren lan hau jauzi garrantzitsua izan da. Aktore profesionalak parte hartu dute, eta, oro har, talde osoak beste maila bat zuen. Niretzat, aldaketa nahiko handia izan da, ez baita erraza pelikula bat filmatzeko behar duzun guttia martxan jartzea. Ameriketako Estatu Batuetan, hala ere, film labur asko egiten da, ohitura handia dago, eta ez zen oso zaila

izan proiektuan parte hartzeko interesa zuen jendea aurkitzea.

■ Egindako filma ezagutaraztea ere errazagoa da han?

Bai, jaialdi gehiago dagoelako, baina hemen ere gero eta gehiago daude. Hala ere, AEBetan, lehia askoz handiagoa da.

■ Zergatik erabaki zenuen hara joatea ikastera?


UBI ikastera joan nintzen AEBetara, eta, ordurako, jada bannuen zinema ikasteko ideia. Hasieran ez nuen oso argi han gelditu edo honat itzuli, baina lagunak egin, unibertsitatean hasteko aukera sortu eta gelditzea erabaki nuen. Zinema ikasi nahi nuen, eta han egitea aukera ezin hobea zela pentsatu nuen. Ni duela zazpi urte joan nintzen AEBetara, eta orduan, hemen baino aukera gehiago zegoen han.

■ Bere ezkontzaren egunean berandu esnatzen den senargaiaren istorioa kontatzen duen komedia da *Things I did to say I do*. Nondik sortu zen ideia?

Egiten ari nintzen masterraren baitan prestatutako proiektua da. Berehala pentsatu nuen komedia izan behar zuela. Bere helburua lortzeko bere burua mozzorrotzen duen lagunaren ideia izen zen abiapuntua. Apezarena egiten duen senargaiaren ideia bururatu zitzaidan, eta hortik abiatuta prestatu nuen filma.

■ Hitzetan baino gehiago irudietan jarri nahi izan duzu istorioaren indarra, azpimarratu duzunez.

Bai, hala da. Filma ingelesez egin nuen, eta nire asmoa zen,



● LANDER F. ARROIABE / ARGAZKI PRESS

hizkuntza ez ulertuta ere, aurkezten ditudan egoerez jabetzea ikuslea. Zinema mutua nuen buruan filma egiten ari nintzela; kutsu hori eman nahi izan diot. Eta lortu dudala uste dut.

■ AEBetako zinema industriaren baliabideak, bai, baina Europako zinemaren pertsonaiak garatzeko modua nahiago duzula erran duzu.

Bai, baina, horrek ez du erran nahi AEBetan film onak egiten ez direnik, ezta Europan film txarrak egiten ez direnik ere. Egia da AEBetako zinemak duen arazo delako diruari lehentasuna ematea, eta, ondorioz, istorioak azalean gelditzen dira. Baina badira istorio onak ere. Giltza bi es-

parruen arteko nahasketa dela uste dut, hau da, istorio onak kontatzea, pertsonaia interesgarri eta landuekin, eta horretarako beharrezko baliabideak edukitzea.

■ Ikasketak amaituta, hemen gelditzeko asmoa duzu? Proiekturik baduzu?

Oraingoan, hemen nago, baina ez dakit itzuliko naizen. Lana dagoen lekuan egonen naiz. Proiektuak badituz, baina oraingoz, filma jaialdietan mugitu nahi dut. Nire asmoa film luzeen esparrura jauzi egitea da, eta badakit horretarako lan asko egin behar dudala; eta prest nago.

→ Edurne Elizondo

soslaia

1975. urtean sortu zen Diego Gracia, Iruñean. Lehen ikasketak Nafarroako hiriburuan egin ondoren, AEBetara abiatu zen UBI egitera, Kaliforniara. Ondoren, Komunikazio Zientzietan lizentziatu zen, zinemaren lerroan, Miamiiko Unibertsitatean.

1999tik 2001. urtera masterra egin du Los Angelesen, Zinema, Telebista, Bideo eta Medio Berrietan. Ikasketak egin bitartean, lau film labur zuzendu ditu: 'Replay', 'Lucky Bill', 'Besame mucho' eta 'Things I did to say I do'.

Beste hainbat proiektuan ere parte hartu du: Eduardo Montesen 'El secuestro' filmean ekoizpeneko laguntzaile izan da, eta lan bera egin du Antonio Gonzaloren 'El aroma del Copal' lanean. Zinemaren munduan jarraitzea da Graciaren helburua.



Nafar Kronika

Daniel Urrutia

Altxatutakoen monumentua

Karlos III.a etorbide porlaneztatu eta oinezkoentzat jarritakoaren bukaeran Eroritakoen Monumentua dugu iruindar sufrituok. Iragan hilabeteen lanak hasi zituzten eraikin itsusi mortal horretan, erakustoki bilakatzeko aldera. Zeren erakustoki? Bada, sinbolo baztertzaileren erakustoki. Izan ere, Artzapezpikutzak eraikina Iruñeko Udalarari eman ziolarik, eraikineko sinboloak ez zirela kentzen ahal jarri zuen baldintzat. Oposizio alderdiek sinboloak ezkatatzeko eskatu zuten abenduan, Elizaren baldintza saihesteko edo. Baina UPN eta CDNren botoek atzera bota zuten eskakizuna. Hortaz, arrano frankistek, Molaren gorazarrerako margoek eta «Navarra a sus muertos en la cruzada» gisako esaldiek han segituko dute, makina bat nafarren lotsarako.

1936ko uztailean hasi eta Francok irabazi zuena gerra zibila izan zen gurean ere. Orduan nafarrak nafarren aurka aritu ziren, euskaldunak euskaldunen aurka. Are gehiago, gure aitaxi erreketek euskaraz errezatzen zuten Gipuzkoako miliziano erdaldunak akabatzen joan aitzin. Haiek, ordainean, metrala zatiak sartu zizkioten eskuineko izterrean. Eta aitaxiak —tira, aitaxiak ez, haren buruzagiek— Eroritakoen Monumentua egitera behartu zituen preso errepublikanoak. Presoek behintzat monumentuaren eraikitze lanean parte hartu ahal izan zuten; hiru mila nafar zoritxarreko bide bazterrean gelditu ziren bertiko.

Alegia, nahiko gorroto, samindura, ezinikusi eta tristura dagoela pareta horien artean Eroritakoen Monumentua benetan erorarazi behar dela pentsatzeko. Ez dute hori eginen. Aitzitik, aurpegia garbituko diote, aretxa eta pikorrak kendu gabe.

Heldu den ostegunean, osoko bilkura eginen dute udaletxean. PSNk mozioa aurkeztuko du sinboloak estaltzeko, «onargaitza baita herritarren zati handi bat baztertzaren duten sinboloak agertzea». Litekeena da 1936an altxatu zirenen oinordeko politikoei (eta biologikoei?) mozioa atzera botatzea. Altxatu zirenak ez baitziren, inondik inora, erori.

MUSIKA

- **Uharte**: Arcanda taldea, bihar, Zona Limite aretoan, 01:00etan.
- **Iruñea**: Judas Priest taldea, igandean, Anaitasuna kiroldegian, 22:00etan.
- **Iruñea**: Hurakan taldea, asteazkenean, Txantreako Akelarre tabernan, 21:00etan.
- **Burlata**: Monkey Band taldea, ostegunean, Animals tabernan, 20:00etan.
- **Atarrabia**: Trueke taldea, ostegunean, The Indian tabernan, 20:30ean.

BERTSOLARIAK

- **Burlata**: Silvierak, Aranok, Etxabek, Estangak, Zelaiak eta Ene-ritz Zabaletak Nafarroako Bertsolari Txapelketaren bigarren finalerdia jokatu dute, bihar, 18:00etan, Musika Eskolan.
- **Bidarrai**: Arzallusek, Elizagoienek, Olaetxeak, Alkatek, Altxartek eta Iparragirrek hirugarren finalerdia, igandean, 16:00etan, trinketean.

ANTZERKIA

- **Uharte**: Arrate Leunda ipuin kontalaria Berdintasuna elkartean, gaur, 17:00etan.

HITZALDIAK

- **Atarrabia**: Asisko Urmenetak, Antton Olariagak eta Kike Amonarrirek *Eskuaraz libertzeko manerak*. Hitz aspertua izeneko hitzaldi interaktiboa eskainiko dute, asteazkenean, 19:30ean, Kultur Etxean.

IKASTAROAK

- **Iruñea**: Biharko da azken eguna Alde Zaharreko ikastaroetan izena emateko: eskulanak, yoga eta erlaxazioa, argazkilaritza, pintura, areto dantzak, antziginasiaz, masajea, Internet,

euskal dantzak, afro fantzak, gaztelania etorkinendako, eta altzarien zaharberritzea. Auzo Elkartean eman behar da izena (Aldapa, 5), edo 948-212526 telefonoan.

LEHIAKETAK

- **Barañain**: Bestetarako kartel lehiaketarako lanak aurkezteko epea asteazkenean akituko da. Lanek 75 cm-ko altuera eta 50 cm-ko zabalera izan behar dute, nahitaez. Ondoko testua agertuko da: Fiestas de Barañain del 26 al 30 de junio de

2002 / Barañaingo festak 2002ko ekainaren 26tik 30era.

- **Iruñea**: Hilaren 19a arte aurkeztzen ahal dira, Sorgintze tabernan Arrosadiako jaietako kartel lehiaketarako lanak. Testua: Arrosadiako festak 2002ko maiatzak 31, ekainak 1 eta 2 / Fiestas de arrosadia 31 de mayo, 1 y 2 de junio de 2002. Kartelak koloreetan eta gehiezin, DIN A-3 tamainakoa.

ERAKUSKETAK

- **Iruñea**: Iñaki Lazkoz artistaren *Captar lo esencial* erakusketako

lanak Carlos Ziriza galerian (Berria, 123), hilaren 12a arte, asteartetik ostiralera, 18:00etatik 20:30era, eta larunbatetan, 11:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 20:30era.

- **Atarrabia**: Jose Maria Ballestaren *Hondarribia, una vida en el mar* argazki erakusketa Kultur Etxean, hilaren 12a arte, astelehenean ostiralera, 17:00etatik 21:00etara.
- **Uharte**: Pablo Juarrosen argazkiak Kultur Etxean, hilaren 13a arte, astelehenean ostiralera 17:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan goizetan.

Asteko erakusketa



Simonides

Non: Molmar galerian (Curia, 18).

Noiz arte: Apirilaren 13a arte.

Ordutegia: Lanegunetan, 11:30etik 13:30era, eta 18:30etik 20:30era.